

ETA ZER DA JOLO?

Ekainaren 30a da. Azkenik iritsi da eguna. Elkartu dira konpainia guztiak Urdanibia Plazan. Jendea poz-pezik dago bai konpainietan, bai espaloietan. Eta bapatean, egin da ixiltasuna.

Kornetinak ozen eta gogotsu egin du bere deia eta hatxeroak badoaz maldan gora. Oihu eta txalo zaparrada artean, konturatu gabe heldu gara San Juan Plazara. Ziztu bizian, kolpe batean eta geratu gabe. Arrankada bukatu da.

Inoiz bizi izan ez ditudan gauzak ikusten ari naiz. Musika, jendea, bolbora usaina... dena da berria eta dena da betikoa.

Iritsi da Jenerala bere laguntzaileekin zaldi gainean. Sartu da plazan eta bere lanak egin ditu. Deskargak eginak eta Irungo bandera jasota. Berriro ere kornetin hotsa. Berriro ere ixiltasuna.

Eta bapatean... jolo.

Orain bai, kantineira, bagoaz auzora.

Eta zer da jolo?

Ba horixe bera. Jolo da nire auzoa.

Jolo dira Junkaleko elizaren kanpaiak gira eta bira.

Eutsi ezin ditudan malkoak.

Jolo da hatxeroen irribarrea, Danborradaren ixiltasuna, Bandaren poz eta algara. Zalditeriaren ferra hotsak. Konpainien musika puskatzea bere kideek "parabapa-parabapa" abesten duten bitartean.

Jolo dira ama eta lagunak betiko toki berdinean, irrifartsu, kantari eta saltoka.

Jolo da joan zen izeba. Eta egun hartan itzali zen amona.

Jolo da kuadrilla eta gehitzen doazen seme-alabak.

Zaldi gainean edota oinez doazen lagunak. Eskopeta hartuta, edota danborra gerrian. Denek dute jolo bere ahoetan.

Jolo da aita eta da anaia.

Jolo dira lankideak, izandakoak eta direnak.

Betiko begirada berdina espaloietan, joandakoak bihotzean.

Batzuetan euritan blai, besteetan eguneko lehen izpiek ukituta. Baina beti alai.
Arazoak ahaztuta. Jolo da beti poza.

Jolo izango da aurten ere berria. Eta aurten ere betikoa. Batzuk tokiz aldatuta,
zaldi gainean edota sablea eskuetan. Beste batzuk amaren eskutik, lehen
hatxeroa ikusteko irrikitan.

Jolo da kantinerak bere konpainiaren musika entzuteari utzi, eta Bandaren
hotsak entzuten dituenen nola emozionatzen den ikustea. Bere emozioa gure
bilakatzea.

Jolo da tximiko bat bihotzean.

Hori da jolo.

Beti berdina eta beti ezberdina.

Jolo da esplika ezina.